

[USURBIL](#)

Gaur jardunari berrekitekoa den Orbeldi, ETB-ren "Izan Bagara, txotx!" saioan

Noaua Aldizkaria 2021-01-18 14:15



Oholtzan (Txotx 2021!)



Covid19ari aurre egiteko Eusko Jaurlaritzak indarrean dituen neurri berrien artean, dantza taldeen jarduna baimendu denez, gaur bertan berrekin asmo die saioei Orbeldi Dantza Taldeak. Aurretik, larunbat gauean ETB-n ikusteko aukera izan genituen, Saizar sagardotegian grabatu zuten "Izan bagara, txotx!" saio berezian.

Aurreko urteetan jendez gainezka egongo ziren sagardotegiak, eta jendetsuak izango ziren baita txotx irekiera ekitaldiak; Kalezarko Saizar sagardotegian bezala. Pandemia betean ordea, halakorik egitea eragotzi denez, bestelako alternatiben aldeko apustua egiten ari da sektorea. Saizarren txotx irekiera esaterako, publikorik gabe ospatu dute berriki, ikuskizunean bilakatu eta Euskal Telebistako kamerek grabatu zuten.

Larunbat gauean eskaini zuten saio berezia ETB1-en, ordutegi nagusian. "Sagardoaren omenaldia" izan nahi zuen Julian lantzik aurkezturiko saioa, NOAUA! Kultur Elkartearen azaroko Kulturaldian Sutegin izan genuen Korrontzik girotu zuen. Herri kiroletako erakustaldi bikaina eskaini zuten, Inaxio Perurena harri-jasotzaileak, Susana Maldonado harri-zulatzaleak eta Ernesto Ezpeleta aizkolariak.

Andoni Egañak bertsoz giroturiko irekiera ekitaldia abiarazteko ohorea, pandemiak gogor kolpatu duen Gipuzkoako ostalaritza elkarteko Mikel Ubarretxenarena izan zen. Musikak soilik ez, dantzariak ere girotu zuten saioa; tartean, Amasa-Villabonako Oinkariko kideek eta Usurbilgo Orbeldikoek.

Orbeldi dantzan berriez gaurtik

Gogoan izan, asteazkenaz geroztik Eusko Jaurlaritzak covid19ari aurre egiteko [neurri multzo berria](#) du indarrean. Tartean, 100.000 biztanleko 14 eguneko 500etik beherako intzidentzia duten udalerriek (tartean Usurbili), Eskola Kirola

edota dantza taldeen entseguak berreskuratzea baimendu zaie. Honenbestez, larunbat gauean ETB-n ikusi ahal izan genuen Orbeldi Dantza Taldea bere jardunera itzultzekoa da astelehen honetatik, urtarrilaren 18tik aurrera.

Kultura

Erantzun



Ikusienak



[Eremu gorrian laugarren egunez, 618,26tik 554,85era murriztu da berriz intzidentzia](#)

[Koronabirusa](#)

Noaua Aldizkaria ots 11, 12:45 [Usurbil](#)



[Eremu gorrian diren EAE-ko 66 udalerrien zerrendan segitzen du Usurbilek](#)

[Koronabirusa](#)

Noaua Aldizkaria ots 11, 13:06 [Usurbil](#)



[Udalerri euskaldunetak o gazteentzako topaketetan parte hartzeko izen ematea zabalik](#)

Noaua Aldizkaria ots 11, 09:04 [Usurbil](#)



[Eremu gorrian hirugarren egunez, 618,26raino igo da intzidentzia](#)

[Koronabirusa](#)


Noaua Aldizkaria ots 10 [Usurbil](#)



["Pandemia tabernan", bideoz bideo](#)

[Koronabirusa](#)

Noaua Aldizkaria ots 10 [Usurbil](#)



[Kabiene: "Pandemia garaiko autogestioa ez da erraza izan, baina horrek indartu gaitu"](#)

Noaua Aldizkaria ots 10 [Usurbil](#)

Noaua Kultur Elkarte

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil

Tf: 943 360 321 | erredakzioa@noaua.eus

Codesyntaxek garatua



HONI BURUZ

LEGE OHARRA

PUBLIZITATEA

ARAUAK

HARREMANETARAKO

RSS



Gipuzkoako Foru Aldundia





Gertuko informazioa, euskaraz

AIARALDEA	AIKOR	ANBOTO	ATARIA	BALEIKE	AIURRI	ERRAN	EUSKALERRIA IRRATIA	GOIENA	GUAIXE	HIRUKA
KARKARA	MAXIXATZEN	PLAENTXIA	ALEA	28 KANALA	ANTXETA	BARREN	ERLO TELEBISTA	GEURIA	GOIERRI TELEBISTA	
KRONIKA	MAILOPE	NOAUA	DEUSTUALDEA PREST	TXINTXARRI	URIOLA	UZTARRIA	AMEZTI	OIZMENDI TELEBISTA		
				Gurean	Plazanbazan	Itap				
				Tokikom publizitatea						